

Astekaria

BARRREN

elgoi



San Anton 93
Tradizioak denborari eutsiz



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

3 LAU HANKATAN
 "Maitale aparta izan behar du Europa delako horrek bere besoetara jauzi egin eta geure buruaz ahazten garenean, ez duzue uste?".
Alberto Ansuategi.

6 ERREPORTAIA: BEHERAPENAK: MERKEAGO EROSTEAREN ZORAMENA
 Ezer erosi baino lehen, ondo pentsatu gauza horren beharra duzun edo ez.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA.ELEIZATIK BORRATU: BAI ALA EZ.
Pablo Garrido, K.A.J. taldeko kidea:
 "21 pertsonak beren deskidetzeko eskaera orria sinatu zuten gure ideiak azaltzeko Gabon egunean kalean jarri genuen mahaian".
Pedro Albizuri, Parrokoa:

"Orain dela gutxi gure herriko gazte-talde batekin, erlijioari buruz, izan nuen istilua adierazteko esan didate".

12 BERBETAN: ARANTXA MENDIKUTE, POSTARIA:
 "Orain uniforme berriarekin adarjotze batzuk ere egon dira, hori bai, piropo bat edo besteren artean".

14 KIROLA:
GAIA: DEBA BEHEKO LEHEN ESKALADA TXAPELKETA.
ELKARRIZKETA: Alazne Rementeria.
 Hogeitabost urteko ingeniari gai honek 10 urte baino gehiago daramazki eskubaloian jolasten.

16 ELKARTEETATIK BUELTAN
BALTASAR: BETIDANIK PILOTAZALE.
 "Baltasar izan zen, bertan emakumeak sartzen utzi zuen lehen elkar-tea".

17 KULTURA: TRADIZIOAK DENBORARI EUTSIZ.
 "Euskal Herriko bazter ezberdinetako artisau lanak ikusgai".

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	742950
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

KOMIKIA



LAU HANKATAN

Alberto Ansuategi



Ametsetan ote?

Sarritan galdetu diot ene buruari ametsak zer diren eta hamaika erantzun aurkitu baditut ere batek berak ere ez nau

asetu. Ametsak bizi ez ditugun errealitateak izan litezke, edota denboraren argiek gure bizitzan sortzen dituzten itzalak. Auskalo zer diren. Halere hainbeste urtetan ametsetan egin eta gero gauza bat ziur jakin badakit: amets bat ohosten digutenean haren edertasuna areagotu egiten dela eta inposatuz gero, aldiz, amesgaizto bilakatzen dela.

Lerro hauetan mendeetan zehar gizon eta emakume askoren ametsa izan den Europari buruz hitzegitera natorkizue: Carlomagnok Pirineoak zeharkatzerakoan amestu zuen Europa, Napoleonek Austerlitzeko zelaian amestu zuen Europa, Hitlerrek bere bunkerreko iluntasunean amestu zuen Europa eta hainbat euskaldunek gure herriaren nortasuna berrindartzeko bide bezala amestu genuen Europa. Eta argi dago Europa guzi horiek ez direla bat, ametsak errepikatzea ezinezkoa den legez.

Orain ere ameslari berriak aurkitu ditu gure Europa ase-ezinak. Aurpegi ilun eta traje gris ez jantzirik datozkigu, atez ate beraien ametsa geurea dela aldarrikatzen, eta ez dute ezezkorik onartzen.

Nik ez dut uste gure Europak eta haien Europek elkarrekin zerikusirik dutenik. Inposatu nahi diguten Europa kapitalen Europa da. Merkatu nazionalen hestuasunetatik at mozkin handiagoak lortzeko merkatu zabalago baten bila dabiltzanen Europa litzateke hori. Nik amesten dudana Europa, berriz, herri askeen Europa litzateke, langilegoak sortutako Europa, herrialdeen arteko ezberdintasun sozio-ekonomikoei aurre egiteko asmo sendoa erakutsiko lukeen Europa, eta ez naiz ifarraldeko nazio garatuek, Alemania buru dutela, hegoaldekoei

gogo txarrez eskeinitako "kohesio fondo" ziztrin horri buruz ari. Jadanik Maastrichteko buru argiek ametsak ezin eros daitezkeela jakin beharko lukete.

Hala eta guzti ere, kezkarriagoa deritzot Madrileko gobernuak arazo honetan azaldu duen defizit demokratikoa. Maastrichteko bide neketsuari ekin aurretik ez al litzateke bidezkoa izango bidaia hori egiteko prest gauden ala ez galdetzea? Dioten bezala, gehiengoaren babesia izanik, zeren beldur dira?

Ametsak amets, krisiak mendebalde osoan bere itzala zabaldu du eta Euskal Herriak ere haren eragina nabari dezake. Urrutira joan gabe, hor ditugu Deba bailarako hainbat eta hainbat enpresa hersteako arriskuan eta bertako langileak langabezian. Gure poltsikoak odolustutzen ari dira eta noraezean, etsipenaren nekez, hamabi izarren lurralde zoragarria doan trenarekin egin dugu topo. Halere bidaiarako txartela garestiegia da. Oraingoz, siderurgia integralaz eta nekazaritzaz ordainduko diegu, untzigintza aspaldian galdu genuelako. Horren atzetik konbergentzia planaren astindua jasan beharko dugu. Guzia zeren truke? Denboraren haizeak edonora eraman ditzakeen promesa batzuren truke.


Maitale aparta behar du izan Europa delako horrek bere besoetara jauzi egin eta geure buruaz ahazten garenean, ez duzue uste? Ez al dugu gehiegizko konfidantza erakusten Europa delako horrekiko gure ekonomiaren euskarri guziak desegin eta bere eskuetan gelditzen garenean?

Agian oker nago eta Europako batasunak gu gabe ere aurrera egingo duenez, hobe dugu beraiekin abantatzea. Beharbada komenigarriagoa zaigu aberatsen anaia txiroa izatea, merkatu ekonomia honetan umezurtz gelditzea baino. Halaz ere, esan bezala, ukatutako ametsak ederragoak dira, inposatutakoak amesgaizto bilakatzen diren bitartean.

- Argitaratzailea:**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
- Laguntzailea:**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza:**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirrazaldegi
- Kazetaria:**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea:**
Maite Rementeria
- Publizitatea:**
Amaia Leiaristi
- Kolaboratzaileak:**
Miriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Aitor Lodoso, German Meabebazterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta.
- Banaketa arduradunak:**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Inprimategia:**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK

ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Kaleko "gure" zakarrak

Hasteko eskertu nahi genuke zuen aldizkariak gure nahi eta beharrak, kegak e.a. azaltzeko ematen duen aukera. Oraingoan gure, eta gure honek denok esan nahi du, arduragabekeria salatu nahi genuke. Arduragabeak gauza askotan gara, baina gaur azpimarratu nahi genukeena inguruko garbitasunari dagokiona da. Etxetik irteterakoan panpox panpox goaz, gure usain eder, gure arropa dotore... baina lehenengo zigarroa erre edo

papelezko musuzapia erabili edo karameloa jan ondoren, gure hondakina herriko apaingarri berri bat bihurtzen dugu, lurraren itxura aldatuz. Hau konponezina al da? Horixe ezetz. Baina ez gaitezen hasi beti txepetxak kulpa duela esanez, eta beste batzuk hori konpondu behar dutela esanez. Denon artean ahalegintxo bat eginez konpon daiteke. Zakarrontziak erabil ditzagun, horretarako baitaude, azken finean herria gurea baita.

M.A., K.A eta A.I.

Musika bajatu, mesedez!

San Anton jaiak datozela eta, egitarauaren barruan Maalako parkean rock kontzertu bat anuntziatu digute. Hau dela eta, nire kezka azaldu nahi nuke:

Maalako auzokide bezala esan behar dut beldurrez egoten naizela horrelako kontzertuak izaten direnean, bada, halakoetan ezin izaten da etxean lorik egin.

Ez nago kontzertu hauen kontra, beharrezkoak direla uste dut, gazteek dibertitzeko eskubidea daukatelako.

Dena den, bolumen baxuagoan ere, berdindin entzun daitekeela uste dut; gehiago esango nuke, belarriek eta gorputzak dar-dar egiten dizutenean, ez dago musika entzuterik, are gutxiago lo egiterik.

Horregatik, horren ardura duenari, musika-bolumena neurri egokian jartzea eskatuko nioke, batzuk musika entzun eta besteok gehiegi eskatzea ez bada, lo egin dezagun.

B.A.



**Igandean goizeko 3,30etan 2 txerrikume zozketatuko ditugu guASS dantzalekuan. Zatozte!!
San Anton jai alai eta martxasoak pasa itzazue!!**



Batek baino gehiagok izango du gogoan Maalako Ospitala. Hona hemen Begoña Mugertzak laga digun aintzinako argazkia. Seguruenik 1955 urtea baino lehenagokoa. Ikus daitekeenez zubia egin aurretikoa dugu berau, eta garbi azaltzen den bezala, etxe zati bat bota behar izan zuten egungo zubia eraikitzeko.

Hain gogokoa zen Maala-pea ere ikusten da argaz-

ki honetan, hau da, elkartzeko eta jolasteko beharrezkoa izaten zen eliz-ataria.

Pedro Muguruza Etorbidearen sarrera ere gutziz ezezaguna iruditzen zaigu, garai hori ezagutu ez genuenoi. Agertzen diren zuhaitzak, Ormetxe jauregi-koak ziren. Gaur egun lantegi bat dago bertan. Beneran pena ematen du Elgoibarren horrelako leku eder-
rak desagertarazi direla pentsatzeak, ezta?



KENSINGTON

- ⇒ *INGELESZ gain, orain, FRANTSESA ere irakasten dugu.*
- ⇒ *Urtariletik aurrera TALDE BERRIAK . MAILA GUZTIAK.*
- ⇒ *Zentru ofiziala Cambridge P.E.T.(Zarautz) eta University of London azterketetarako.*

Pedro Muguruza etorbidea 8 Tel, Fax: 74 02 36. ELGOIBAR



Gipuzkoako Hizkuntz Iraskuntza
Elkarteko Kidea.

Beherapenak: merkeago erostearen zoramena

Urtarrila, beherapen edo merkealdien garaia da. Gabon jaien ostean, kontsumitzaileen poltsikoak zuloz beteta bazeuden, orain, beherapenen zoramenak are gehiago zulatuko ditu. Batzuk lehenago, beste batzuk beranduago, dendari guztiek denboraldiko artikuluak salneurri baxuagoan iragartzen dituzte. Horixe da behintzat, dendari orok errespetatu eta kontsumitzaileek defendatu behar duten araua.

Heldu da aspaldian begiz jota genuen praka edo alkandora erosteko aukera. Askotan, erdi-prezioan ere bai. Baina horregatik ez da edonola eta edozer erosi behar. Gainera ez da gauza bera, beherapena, merkealdia eta likidazioa. Beherapenetan, sasoiak aldaketa edo



Errotulu deigarriak jendearen arreta erakarri nahiean.

bukaera izateagatik, salneurriak jeitsi egiten dira. Produktu bakoitzak aurreko eta ondorengo prezioa izan beharko du eta gehienez, hilabete bateko iraupena izango du. Debekatua dago izorratutako produktuak, beherapenetarako espreski eskuratutako produktuak eta merkealdia baino hilabete lehenago dendariaren eskuetan ez zeuden produktuak saltzea.

Merkealdi edo saldoe-

tan, akatsdun edo modatik pasatutako produktuen salmenta egiten da. Dendariak aldezturik, artikuluak duen akatsa jakinarazi behar dio erosleari. Likidazioa, berriz, negozio itxiera edo enpresa aldaketa denean egin daiteke soilik.

Urtarrileko zein Udako beherapenetan, erdiraino merketutako jantziak aurki ditzakegu, eta beherapenen bigarren edo hirugarren fasean, "guztia 1000 edo

Kuestioa ez da asko erostea, ondo erostea baizik

HISPANIA  **ZURICH**

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

 **ARRATE IRRATIA**

24 orduz zuekin

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

2000 pezetatan" iragartzen duten letreroez jositako dendak ere bai.

Dena den, beherapenak ez dira guztiontzat uste bezain onuragarriak. Azken urteotan eztabaida piztu da zenbait dendak eta kate komertzial handiek batez ere, inork baino lehenago hasten dituztelako beherapenak, eta noski, honek zuzenean eragiten dio dendari txikiari.

Dendari txikiak

Txankakua dendarien elkarte, nahiko kexu da alde horretatik, eta gainera denboraldi hau oso eskasa izan dela kontutan izan behar da. Kate komertzial handiek ez dute beherapenen araudia aintzakotzat hartzen, ez kalitateari dagokionean, ez salneurri arauari dagokionean. Honela, beherapenak inork baino lehenago hasiaz, dirutza izugarriak lortzen dituzte. Txankakua dendarien elkartearen ustez, ez du zentzurik neguko beherapenak azaroan edo abenduan jartzeak, beherapenak sasialdi bukaeran egin behar baitira. Eta noski, Txankakua elkartekoen ustetan,

Beherapenetan erosteko zenbait aholku:

Hona hemen Elgoibarko kontsumo bulegoko arduradun den Amaia Nogerok emandako zenbait aholku:

- Zerbait erostean, ordainagiria edo tiketa eskatu.
- Erositako produktua itzultzea onartzen den ala ez ikusi. Ez badute horrelakorik onartzen bereziki hori azaltzen duen txartela izan beharko du dendak. Beti ere, itzulketak onartzen dituzten dendetan erostea komeni da.
- Edozein arrazoiengatik produktua aldatu nahi izango bagenu, "balea" onar dezakegu. Dendariak ezingo du balerik luzatu produktuak akatsen bat baldin badu. Kasu honetan, dendariak dirua itzuli edo anzerako beste produktu baten ordeztzeko obligazioa izango du.
- Merketutako salneurriarekin batera, hasierakoa ere azaldu behar da.
- Beherapenetan kalitateak ez du eskasagoa izan behar.
- Produktuak behar bezala etiketatua egon behar du: konposaketa, tratamendua...
- Ezer erosi baino lehen, ondo pentsatu benetan gauza horren beharra duzun ala ez, eta beti erosgaien tiketak gorde.

guzti honetan kaltetu nagusia dendari txikia da.

Publizitatearen eragina

Marketing eta publizitateak badute ustezko salmenta masibo honetan zeresana. Beherapenetan jadanik ez dira produktuak masiboki saltzen eta telebistako iragarkiek zeozer erosteagatik orduak itxaroten dagoen jende kolak era-



Kalitateak ez du zertan behera egin behar

kutsi arren, saltzaile gehienek iritziak, egun ez da horrelakorik gertatzen. Publizitateak eta kate komertzial handiek sortutako errealitate faltsutua da hori.

PETUNIA
Modak
Errosario 12, tel: 74 16 48

• elektrizitatea
AZPELETA
San Frantzisko 51. Tel: 74 12 38

kalamua SDAD.COOP.
GARBIKETA ZERBITZUA
PERTSONA NAGUSIEN
ETA EZINDUEN ZAINKETA.
Tel: 74 22 72 - 74 24 48.

Eleizatik borratu: bai ala ez?

1986-87 urteetan hainbat pertsona Eliza Katolikotik deskidetu zela ezagutuaz, 1990.urte amaieran Elizaz Nazkatutakoen Elkarteak sortzea erabaki genuen herritarrei Elizatik kanporatzeko aukera zegoela ezagutarazteko.



Lehen, inskribatzeko aukera besterik ez zegoen (bataioaren bidez eta ezezkoa emateko gai ez zaren adin batean), ez zituzten ateratzeko posibilitatea eta eskubidea errekonozitzen. Ez dugu bere aberaste eta doktrinatzeko helburuak aurrera atera asmoz dirua lortzeko erabiliak diren zenbaki huts bezala jarraitzerik nahi. Kolektiboak egokia kontsideratzen duenean puntualki biltzen da deskidetze kanpainak egiteko, 1990.eko gabonetan bezala, zeintzuetan 41 pertsonak deskidetzea eskatu zuten beraien boluntate eta kidetze askatasuna errespetatu ez zituen Donostiako Gotzaitegiaren ezetza jasoz. Gabonak aukeratzen ditugu, balore tradizional erorkorrenak, hipokresia eta hiperkontsumoa bultzatzen diren egunak direlako. (Zer axola du milioika pertsonen gose eta pobreziak). Gainera, 1992.eko abendu honetan "katezismo berria"ren argitaratze oraintsuaren eragin-garria genuen, non Elizak bere eskema atzerakoi eta fasziztoideenak isladatzen dituen. 21 pertsonak beren deskidetzeko eskaera orria sinatu zuten gure ideiak azaltzeko Gabon egunean kalean jarri genuen mahaian, non demokrata-kristau talde zabal bat guri

iraintzen aritu zen, predikatzen bai, baina praktikatzen ez duten tolerantzia zein den argi utziaz. (Fanatismo hutsa).

Elizak gerrateak eta heriotz zigorra justifikatzen ditu, autoritate zibil zein militarrenganako obedientzia eta sumisioaren alde dago, emakumeak diskriminatzen ditu, homosexualak, pertsona seropositiboak, sexualitate askea gaitsezten du, masturbazioa... herri jaietan dibertsioa eta ezarritako ordenaren legeak apurtzearen karga "desaktibatzea" barne. Boterera begiratuz gero, beti aurkituko dituzue bertan elizgizonak.

Eskerrak gazteei. Udalteak egindako inkestek dioten bezala, gazteek ez dute "rollo" hori tragatzen: %44,7ak Elizaz guztiz paso egiten du, %25,5ari oso gutxi interesatzen zaio, eta interesatzen zaion jende gehienak, gehiago egiten du sendiaren presioz norberaren interesez baino.

Bukatzeko, Elizatik deskidetzeko animatzen zaituztegu, eskubidea duzuelako eta ez zaizuelako "beste munduko" ezer gertatuko. Arrazoiak mila ditugu, anima zaitetz eta esaiezu EZ Elizaren asmo degradantea.

Pablo Garrido
KAI/ENEko kidea



Esaten didate, orain dela gutxi gure herriko gazte-talde batekin, Erliñoari buruz, izan nuen istilua adierazteko. Gazte talde txiki eta konkretua zen, K.A.I. bezala azaltzen dena: ez ditut, bada,

Elgoibarko gazte guztiak maila berdinean jartzen, ezta pentsatu ere.

Talde honek kartel ugari zabaldu zituen herri osoan, abenduak 24rako programa berezia antolatuz, lema onekin: BORRATU ZAITEZ ELIZATIK. BAI ZAHARRA, BAI BERRIA, KATEZISMOA SUTARA". Zazpiki irratian saio bat antolatu zuten; kalean firmak bildu eta elgoibartarrei dei egiten zieten katezismoak eta irudiak eramateko, bertan apurtzeko.

Parroko bezala azaldu nintzen mahai aurrean, eta galdetu nien: zer alternatiba edo zer bide berri azaltzen diguzue? Denak ixilik. Batek erantzun zidan: ez dugu onartzen, egun batean, bataiatuak izan ginela, guk nahi gabe. "Hori zuen gurasoen problema da; beraiei planteatu; baina ez eratu herrian horrelako parodia lotsagarriak". Ni hitzegiten ari nintzela, pixkanaka-pixkanaka jende multzoa aurreratu zen eta gazteen aurka hasi ziren.

Duela 3 urte, Eguberrian, eskaparate baten

jarri genituen haurren lehiaketako jaiotzak, Parrokiako katekesiak antolatuta. Goiz batean, hor ikusten ditugu eskaparateak pintadaz zikinduta, Jaungoiko, Erliño eta apaizen aurka. Pena eman zigun, gazte horiek haurren kultura eta trebetasuna nola zikindu eta gutxietsi zituzten ikustek.


Eta galdetzen dugu: zein dabil gazte hauen atzetik? Ez ote dira 35 eta 40 urteko beste gazte-zaharrak, aurpegirik eman gabe, inkontrolatu hauek erabiltzen dituztenak? Batzuetan horrelako kanpainak antolatuz eta bestetan elizako portikoan pintada zikin eta lotsagarriekin, beren barruko gaiztotasuna arinduz?

Beren aurrean azaldu nintzen, bai horixe, edukazio eta gizabide hoiek ez direla euskaldun jatorrenak gogoratuz. Baita Elgoibarko herria eta gazte jator pila bat ez dagoela beraiekin esateko ere.

Pedro Albizuri
Parrokoa

ETA ZURE USTEZ?

Eleizatik borratu: bai ala ez?



JUAN EGUREN
69 urte, arotza

Ez, ez zait inoiz bururatu neure izena elizako erregistrotik borratzea. Ni neure gurasoek bataiatu ninduten, baina ni ez nintzateke borratuko. Horrela ohitu gara eta horrela jarraituko dut.



MARIAN GARATE
31 urte, pedagogo

Nire espiritualitatea pertsonala dela uste dut. Ni ez naiz elizara joaten baina ezingo nizuke erantzun borobilik eman, arazo hori ez dudalako inoiz planteiatu. Norberak jakingo du bere buruarekin zer egiten duen.



ALBERTO ZELAIA
21 urte, ikaslea

Neu borrauko nintzateke. Elizatik paso egiten dut, olinpikamente. Ez naiz borratzen oso komodoia naizelako. Baina bai, borrauko nintzateke.



MIKEL ARTOLA
16 urte, ikaslea

Ez zait inporta. Borratzeko arrazoirik behintzat nik ez daukat. Niri elizak ez dit ezer egin eta ez daukat arrazoirik.



ARANTZA BILBAO
37 urte, irakaslea

Berdin zait. Ez dit horrek inolako arazorik suposatzen. Katolikoa naiz, baina ez dut praktikatzen. Paper batean ego-teak ez du arazorik ematen. Hainbeste paperetan gaude eta!



ASUNCION ALBAINA
56 urte, etxekoandrea

Niri betiko erlijioa gustatzen zait. Debozio handidun pertsona naiz, nire gurasoek egin zuten aukerarekin konforme nago.



AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

GARATE

JANTZI - DENDA

Bartolome Deunaren Kalea, 13 . Tel: 74 11 29 ELGOIBAR



PUBLIZITATEA



742384

Egunkaria gertuago

Euskaldunon Egunkariak bere plangintza berria Deba Beheko eskualdean burutzeko asmoz, bulego berriak zabaldu ditu. Horietako bat Elgoibarren martxan dago duela hilabete pare bat. Edozein enpresa edo lan taldek harpidedun egin, publizitatea ezarri edota Gida Komertzialean (astarteko orrialde horiak) azaldu nahi izango balu, Elgoibarren bertan egin ahal izango ditu gestio guztiak. Bulegoaren egoitza eta telefonoa: San Frantzisko 41, 1. Tel: 74 43 98- 74 13 41.

Txankakuaren sariak

Txankakua dendarien elkarteak egindako zozketan honako zenbaki hauek izan dira saridunak:

- 1- 76.372
- 2- 57075
- 3- 30496
- 4- 01.501
- 5- 00.078
- 6- 24.713
- 7- 08.603
- 8- 11.384

Sari banaketa egun horretan egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 8etan.



elgoiBARREN astekaria aurkeztu zen egunean ateratako argazkia da hau. Ekitaldian, jende mordo bat biltzeaz gain, astekariko zuzendariak, Elgoibarko Izarrako Presidentea, Elgoibarko Alkatea eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia ere bertan egon ziren astekari jaioberriari ongietorria emateko.

Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak, euskararen alde egin izan dena eta egiteko dagoen guztia gogorarazi zigun han bildutako guztioi, elgoiBARREN bezalako argitarapenekin "erdi itzalita zeuden hainbat zuzi berpiztu egin baitira".

Ekitaldia bukatutakoan, elgoiBARREN astekaria osatzen dugunok eta bertara hurbildu ziren guztiek topa egin nahi izan genuen jaiotza pozgarri hau ospatzeko.

Eibarko literatur sari bat Elgoibarrera

Jasone Osoro gure lan-kideak "Eibarko Hiria" Ipuin Lehiaketaren 3.saria irabazi du 18 urtetik gorakoen kategorian, "Menta usaia" izeneko lanagatik. Jasone kazetaritza ikasten ari da eta honako hau ez da sari bat irabazten duen lehen aldia.

Hamazazpi urterekin Etxepe Literatur Lehiaketan, 3.saria jaso zuen eta hurrengo urtean, Eibarko Hiria Ipuin Lehiaketaren 2.saria. "Menta usaia" maitasunezko istorioa da, kazetari eta eskultore baten arteko maitasun istorioa. Aspalditik dator kio idazteko zaletasuna eta berak esan digunez, gustatzen zaiolako idatzen du, ez lehiaketetan parte hartzeagatik.





MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

ASGI

taberna

Urasandi 1,2.zbk.
tel: 74 28 38

MERKEALDIAK

ZOBEL 

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behe. Tel: 74 34 01

Elgoibarren badago "Itxaropena"

Elgoibarko Itxaropena abesbatzak lehendabiziko kontzertua eman zuen gure herrian pasa den abenduak 31ean.

Oraingo hau, ordea, ez da publikoan kantatzen duten lehendabiziko aldia, Donostian egon

baitira lehenago ere kantatzen.

Itxaropena abesbatzakoek esan digutenez, oso kontentu daude Elizan bildu zen jendetza ikusita, horrek morala eta gogoia ematen diela gaineratuz.



Arantxa Zulaika Larrea izan da elgoIBARRENEk Gabonetako ale berezian egindako lehiaketaren irabazlea.

Hona hemen irabazleak saria jaso zuen momentua. Argazkian azaltzen dira irabazlea bera, Eroskiko ordezkaria eta elgoIBARRENEko zuzendaria.

Lehiaketan 51 pertsonak hartu duzue parte. Mila esker denoi eta Arantxari, Zorionak eta on egin!!

Aizkorriko gailurretik urte zaharrari Agur!

Abenduaren 31eko goizean 39 elgoibartar Aizkorriko gainera igo ziren turroi eta txanpanez 1992. urtearen bukaera ospatzeko. Horretarako Morkaiko Mendizale elkarteak autobusa antolatu zuen eta argazkian ikus dezakegunez, deialdiak arrakasta handia izan zuen.

Gorabeherarik ere

izan zuten medizale hauek, bueltan, Elgoibarraren lan egiten duen Eduardo Aranburu eibartarrak orkatilla apurtu eta Urbiaraino jeitsi ondoren, helikopteroz eraman behar izan baitzuten Arrasateko ospitalera. Orain Eduardo etxean dago orkatilla saniatzen. Animo Eduardo!



**Euskadiko Langile
Komisioak**

San Inazio 1 behea. Tel: 74 10 28

TELEFAX PUBLIKOA
FOTOKOPIAK
ESKOLARAKO MATERIALEA

**PAPELERIA
GOXDEN**

Pablo Irureta

San Frantzisko 52. Tel: 74 02 40

**UDA
BERRI
ELGOIBAR**

magu's

ILEAPAINDEGIA

EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

“Beste edozein lan bezalakoa dela iruditzen zait”

Arantxa Mendikute Postaria da. Duela bederatzi urte hasi zuen lana ez omen da gehiegi aldatu. Batzutan asko ibili behar izaten

denez, nekagarria bihurtzen da. Hala ere, bere lana gustokoa du eta horixe eskatu dio urte berriari., lanean jarraitu ahal izatea.

-Noiz hasi zinen lan honetan?

Orain dela 9 urte hasi nintzen. Lehenengo urteetan kontratatu gisa nongoen bitartean oposizioetarako prestaketak egin nituen. Kontratatu bezala egotea borroka etengabe bat zen, lanpostuaren segurtasun ezagatik. Oposizioak gaudituz ondoren, lasaigo geratu nintzen.

-Zer eginbehar betetzen duzu zure lanegun batean?

Nere lana goizeko 8etan hasten da eta arratsaldeko 3etan bukatzen. Lehenago, furgioia datorrenean zakuak hartu eta eskutitzak klasifikatzen ditugu, zertifikatu edo arrunt bezala. Gero, apartadutan banatu ondoren, bakoitza tokatzen zaiona banatzera ateratzen da. Nere sekzioa lehenengoa da, Santa Ana, Ubitarte, A. Arrillaga eta Sigma hartzen dituelarik.

-Zenbat emakume zaudete lanean?

Gaur egun bi emakume gaude. Emakumeak postari lanetan denbora luzean gaude. Nahiz eta batez ere hiriburuetan egon, orain herrietan ere bai. Batzuei postariaren



“Ez pentsa hain sinplea denik. Nahiko lan gogorra da”.

irudia ez zaie gustatzen, baina niri ez zait inoiz axola izan, beste edozein lan bezalakoa dela iruditzen zait. Askotan nekaketa bukatzen dugu, asko ibili behar izaten dugulako. Nahiko gogorra izatera hel daiteke, baina egun ezberdinetan lan kantitate ezberdina dagoenez, oreka batetara heltzen gara. Ez pentsa hain sinplea denik; nahiko lan gogorra da, asko *pateatu* behar baita..

-Elgoibartarrok ze

eskutitz mota jasotzen dugu gehienbat?

Kutxa eta bankuetako eskutitzak dira lan gehien ematen dutenak. Honekin batera, propagandako inpresoena ere jzugarria da; buzoia bete paper, gero gainera zakarrontzira botatzeko.

-Postetxeak aldaketa handia izan al du hasi zirenetik?

Aldatu da, baina ez asko. Banaketa lana adibidez, ez da batere aldatu. bestalde, “pakete bonba”

famosoak hasi zirenetik, Donostiatik datorren seguritate sistema batek aparailu berezi batzuekin, pakete edo eskutitza ikutuz bakarrik, asma deza ke arriskutsua den ala ez. Seguritate neurri honetaz gain, bentaniletan aldaketa ematen ari da, dena mekanizatuz doan heinean.

Orain uniforme berriarekin adarjotze batzu ere egon dira, hori bai, piropo bat edo besteren artean. Hasieran araroa egiten da, eskolako garaiak gogorarazten baititu, baina behin jantzi ondoren gauza normal bezala hartzen duzu.

-Gabonetan lan ugalketarik izaten al duzue?

Bai, beti ere Gabonetako felizitazioak jasotzen baitira. Bestalde, badago jende detailista propina ematen duena, eta normalean Gabon inguruan izaten da. Hala ere, lehen gehiago ematen zen: txartel batzu zeuden eta postaria etxez-etxe joaten zen aginaldoa jasotzen. Hau lotsagarria zela deritzot, guk geure soldata ezarria baitugu.

Belen Arrizabalaga

Julio Anton

Polikiroldegiko zuzendaria



- Zer edo nor izan nahi zenuke? Nainenena.
- Amets bat? Pozik bizitzea.
- Zer da zoriontasuna zuretzat? Problema handiegirik ez edukitzea eta zurekin dauan jendea zeu bezain pozik egotea.
- Gehien erabiltzen duzun piropoa? Ederra, polita.
- Ligeak edo bikote establea? Bikote establea nahiago dut.
- Zein da zure zeregin gustokoena? Nire lanean gustora nabil, lana eta kirola.
- Zer eramango zenuke irla batetara? Neska bat.
- Lo pijamarekin ala narrugorritan? Narrugorritan.
- Gogoratzen al duzu negar egin zenuen azken eguna? Bai, duela hiru aste "Cinema Paradiso" ikusten.
- Diskoteka ala bertso-jaialdia? Biak. Bakoitzak bere momentua dauka.
- Bainujantzi luzea ala tanga? Pistinarako tanga, hondartzarako luzea.
- Sua ala izotza? Sua.
- Argiarekin ala argirik gabe? Argiarekin nahiago.
- Seduzitzea ala seduzitua izatea? Seduzitzea.
- Zer oparituko zenioke neska bati? Idatzi bat, lore bat.
- Zure gauzarik nabarmenena? Zoraldia, alaitasuna...edo sudurra bestela.
- Zein da emakume batengan gehien baloratzen duzun bertutea? Leialtasuna eta berarekin hitzegiten gustora egotea.
- Elizatik ezkondu ala elkarrekin bizi? Beharbada hasieran elkarrekin bizi baina nik uste dut azkenian elizatik ezkonduko nintzatekeela.
- Nori emango zenioke muxu bat? Momentu honetan nirekin irteten ari den neskari.

Jasone Osoro


BERTSOTAN

SAN ANTON JAIK

Jai bat sekula ez dator gaizki urtea ondo hasteko
 Urtarrilaren hamazazpia
 guk San Antonen ospeko
 artisautza erakusketa
 plazan omen da izateko
 Tapia eta Letunarekin
 bukaera ezin hobeto
 juerga handia bofatzen duenak
 astelehena lo egiteko. (BIS).

Eguerdian jarritakoan
 mahai inguruan berbetan
 oroi zaitezte zer entzuten zen
 arbasoen ahoetan
 arrai mota bat ugan zela
 urte sasoi honetan
 baina gaur egun garesti dago
 badakizue benetan
 bisigu asko ez degu jango
 San Antonen omenetan (BIS)

German Meabebasterretxea



GORRINO
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

BETI ARGi, S. L.

*Erregalu artikulua
 Instalazio orokorrak
 Sukaldeko tresneria.*

ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.

"Juve Mekanika" Gabon txapelketaren irabazle

Juve Mekanika izeneko kuadrila aurtengo kuadrilen arteko II.Gabon Txapelketaren garaile izan da. Aurtengo edizioan inoiz baino gazte gehiagok hartu du parte. Guztira 310 pertsona, 21 kuadrilatan banatuta, hain zuzen ere.

Txapelketak iraun duen lau egunetan jende ugari bildu da partiduen gorabeherak ikustera. Kross eta igeriketa frogak izan dira, ikuslego aldetik, arrakasta handiena izan dutenak. Adibide bezala esan, Polikiroldegiko igerilekuan 300 bat lagun bildu zirela igeriketa saioak ikusteko. Saskibaloio eta futbol salan ere, zenbait partidu goizalde partera jokatu diren arren, zaletu mordoa bildu ziren.

EMAITZAK:

PALA: "Macabi de Levantar"
KROSS ETA TENISA:
 "Juve Mekanika"
IGERIKETA: "Txinatar Kudeiroak"
FUTBITOIA: "Lanbroa"
SASKIBALOIA: "Dinamo Kalimotxo"
JOKALARI ONENA:
 Mariano Alvarez
TALDE DEPORTIBOENA:
 "Beti Mozkor"

Alazne Rementeria: "Kirolean neskak oraindik ezezagunak gara."

-Zenbat urte eskubaloian jokatzeko?

Betidanik. Lehenengo Ikastolan hasi nintzen. Gero, Agirre eskolan irakasle zen batek, Txominak, nesken ekipa bat atera zuen. Baina haura ere desagertu egin zen. Pare bat urte ezer egin gabe eta 3.BBBen edo, Eibartik deitu zidaten.

-Zein ekipotan jokatzeko duzu orain?

Orain arte Amaña zeukan izena baina aurtengo, kategoriaz igotzean eta diru arazoak zirela eta, Arrate klubaren barruan sartu gara.

-Nola zabilzate?

Orain lehenengo mailan gaude eta oso ondo goaz, lehen postuan gaude. Hau ikusita kanpotarrak ere ekarri dituzte, Yugoslabiar bat eta errusiar bat
-Datorren urtean, beraz, Oho-rezko mailara?

Agian, ekipoa bai. Baina hau hola bada, orain arte ekipoa aurrera atera dugun jokalaririk asko kanpoan gelditu gaituzte.

-Eibarrera joan behar duzue jokatzera. Zer gertatzen da Elgoibarren?



Elgoibarren beti egon da jokalaririk onak baina ez da ekiporik ateratzen. Diru arazoengatik izango seguruenez.

-Zer ematen eta zer kentzen dizue kirolak?

Egoera fisiko dextente bat eta kategoriaz igo garenaz, kanpora irtetzeko aukera ere bai. Oso ondo pasatzen dugu. Kendu? Denbora, baina bueno...

-Azken urteotan eskubaloia modan dagoela esan daiteke. Zergatik izan daiteke? Berdin gertatzen al da nesken taldeekin?

Españako selekzioa oso ondo dabil eta, jeneralian, ligan ere maila oso ona dago. Telebistan ere inoiz baino partidu gehiago ematen dituzte eta honek ere badu zerikusirik. Halere, neskak oraindik ezezagunak gara, beste kirol gehienetan bezala.

MUXI kirolak

Aukera handia kirolarien zerbitzuan

Antonio Arrillaga, 14 behea. Tel74 01 80 Elgoibar.

MALAPE

Publizitatea

74 23 84


Josu Merino elgoibartarra eskaladako txapeldun

Josu Merino eskalatzaile elgoibartarra, pasa den larunbatean ospatutako Deba Beheko I.Eskalada Txapelketako irabazlea izan zen. Josu Merino elgoibartarra eta Andoni Ansola eibartarra parekatuak gelditu ziren rokodromoaren puntu altuenera igotzean, baina elgoibartarrak denbora hobea egin zuenez, berarentzat izan zen txapela. Hirugarrena Migel Anjel Mula bergarra izan zen eta laugarren postuan, parekatuak, Joseba Alvarez, elgoibartarra hau ere, eta Eskoriatzako Franzisko Some.

Txapelketako eskalatzaile guztiek oso maila altua erakutsi zuten. Horrela komentatu ziguten behintzat rokodromoko bideak prestatu zituzten bi eskalatzaileek, Josean Mulas eta Bea Jimenezek.

Goizez, klasifikatoria eta final-erdia egin ziren eta uste ez izan arren, eskalatzaile guztiek pasa zituzten bi frogak. Horregatik, arratsaldean beste final-erdi bat egin behar izan zuten eta azkenean, hamar eskalatzaile gelditu zirenean, hauen artean finala egin zen.

Deba Beheko I.Eskalada Txapelketa oso arrakastatsua izan da, partaidetza zein ikuslego aldetik. Eskalatzaileen artetik, bost elgoibartarrak ziren eta beste guztiak, Mutriku, Deba, Bergara, Eibar eta Eskoriatzakoak. Aipatu, Patxi Usobiaga eibartarraren partaidetza, 12 urte besterik ez izan arren, bere indarrak helduagoekin neurtzeko orduan batere beldurtu ez zena.



Josu Merino, paretean gora, txapela irabazi zueneko igoaldian.

SOARTE

Rokodromoa

Aritza Monasterio Morkaikoko eskalada arduraduna, kiroldegiko rokodromoaren mantenuaz arduratzen da. Pasa den uztailatik dago martxan, Morkaikok duela hamar urte baino gehiago rokodromoa egiteko asmoa zuen arren. "Rokodromoa leku estali batean egin behar da, neguan erabiltzeko baita. Horregatik kiroldegia egin arte itxoin behar izan dugu" Rokodromoa egin denetik jende asko zaletu da eskaladara. Gainera elgoibartarrok dohainik erabili dezakegu rokodromoa eta kanpotarrei 300 pezeta kobratzen zaie. Erabili ahal izateko baldintza

bakarra, mendiko federazioan federatua egotea da.

Rokodromo honek 9 metro luze eta 11 metro zabal ditu. Rokodromoaren zailtasun maila, heldulekuen kokapena, tamaina eta kopuruaren arabera da. "Zenbat eta helduleku gutxiago eta kokapen bihurrituagoa zailtasun handiagoa. Inguruan badaude rokodromoak baina honako honek inongoak baino aukera handiagoak ematen ditu". Hori ikusita, aurtengo Euskadiko Txapelketa, rokodromo honetan egiteko asmoa dutela azaldu digu Aritzak.

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

Orbea
Kafetegia

San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

Baltasar: Betidanik pilotazale

Orain dela 34 urte, herriko bi kuadrila Plazako arkupeetan zegoen "Ricarda" tabernan elkartzen ziren. Batak, *Pikupe* zuen izena, eta besteak, *Gazte alaiak*. Zeozer egiteko gogoia zutela eta, beste elkarte bat zegoela ikusita, beraien elkarte sortzea erabaki zuten.

"Polon etxea" deitzen zitzaion hartan, korta edo kotxera bat zegoen tokian, hain zuzen, hasi ziren bi kuadrila hauek Baltasar elkarte eraikitzen. Hasi-eran, kide bakoitzak 500 pezetatako antizipoa jarri eta urteroko kuota 25 pezetatakoa izango zela erabaki zuten.

Francisco Arano "Baltasar" pelotari elgoibartarra etxe horretan bizi izandakoa zela eta, haren omenez edo, elkarteari Baltasar izena jartzea erabaki zuten. Harrez geroztik, pelota munduan sartua egon izan da beti elkarte eta pilota federazioan ere badago. Herri edo bailara mailan afizionatu txapelketa eta udako txapelketa lokala urte askotan antolatu du Bal-



Elkartearen fundazio egunean batek ere ez zuen gorbata jaztea ahaztu.

tasarrek. Egun, pilota elkarte bat sortu denez, haren esku utzi dute txapelketen antolaketa. Orain, beraz, elkarte, gastronomikoa da soilik eta beraien ekintza gastronomiko nagusia *lunchak* prestatzea. Hasie-

ran, 50 kide izan ziren elkarte sortu zutenak eta tartean, noski, emakumerik ez. Halere, alderdi horretan nahiko modernotzat dute beraien burua, Baltasar izan baitzen emakumeak sartzen utzi zuen lehen elkarte.

Inoiz, gauza berezirik ere gerta izan zaie: 1988ko uztailako uholdeak izan zirenean, afaltzen zeuden pertsona talde bat leihotik ibaia nola igotzen zen ikusten zegoela, atletik ura sartzen hasi, zen eta txiripaz irten ahal izan zuten.

ERREZETA: Makailaua

Osagaiak:

- Kilo t'erdi makailau
- Olioia
- Berakatzak

Nola egin:

Berakatzak oliotan prijitu. Olioia hozten utzi, eta hoztu ondoren makailaua

bertan jarri azala behe-rantz begira. Su bajaran dagoela behin eta berriro eragin eta noizbehinka buelta eman tajadei. Saltsa lodia egiten zaionean, berakatzak edo piperrak gainean jarri.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1958

Presidentea: Pako

Mugerza

Bazkide kopurua: 72

Urteko kuota: 10.000 pta.

Berezitasuna: Duela gutxi arte pilota

Helbidea: Errosario, 1

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

HARPIDETZAK
 **74 16 26**

Pub Pelouse
CAFE TEATRO
Elgoibar

Tradizioak denborari eutsiz

San Anton egunak Elgoibarko eta Euskal Herriko bazter ezberdinetako artisau ugari biltzen ditu urtero. Tradizio luzeko azoka da eta bertan kalitatea ez da inoiz falta izan. Aurten hogeitabost artisau ezberdinen lana ikusteko aukera izango dugu. Hauetako bost elgoibartarrak dira.

Tartean, zeramikazko ontziak, narruzko artikulak, gantxillozko (kako-rratz) lanak, pintura eta egurrean egindako lanak ikusi ahal izango ditugu. Kanpotik etorritako artisauek ere, denborak eta teknologia modernoak beraien lan-tekniketan eraginik izan ez dutela

erakutsiko digute.

Nafarroatik etorrita, Pedro Jesus Castillo zumitzezko aulki eta otarrak egiten ikusi ahal izango dugu. Bizkai-ko ordezkariak eta Gipuzkoakoak gainontze-ko ihardueren erakusle



AZKUE

Adina ez da beti mugatzaile artisautzan, sarritan aberasgarri.

izango dira. Aipatu, Zea-nuriko lurrinak, Bilboko zeramikazko bisuteria, Eibartik, Nikolas Zurutu-zaren makilak eta kutxak,

Azpeitiko otarrak, Zarauzko makila artistikoak eta abar luze bat.



Zeramika eta narruzko artisau lanak

Artisautza azokan parte hartzeaz gain, egunotan Trini Kruz eta Jose Juaristiren artisau-lanak ikusgai daude Kultur Etxeko erakustaretoan. Josek zeramika lantzen du. Buztina tornoan lantzen da eta bi motatako buztina erabiltzen du ontziak egiteko. Tornoaren bidez buztinari gustoko forma eman ondoren, esmaltea ematen zaio. Buztin urtuezinez egindako ontziak 1260 gradutara egosiak daude. Buztin normala temperatura horietan urtu egiten da, beste buztin mota bakarrik gelditzen delarik. Buztin normalez egindakoak 1025 gradutara egosten dira.

Trinik narrua lantzen du, duela hiru

urte buztina lantzen hasi zen arren. Narrua lantzeko ere, teknika ezberdinak daude. Batetik, narruan marrazkia egiten da eta mailu baten bidez erliebea ateratzen zaio. Beste batzutan, ordea, narruari lehendabiziko azala jaten zaio eta "antea" dena soilik gelditzen da. Kanpoko azala kentzeak lan izugarria du, pixka bat deskuidatuz gero egindako lan guztia alperrigaldu egin daiteke eta.

Narruak zahar itxura har dezan "judeako betuna" ematen zaio. Teknika bat edo bestea lantzerakoan narru gogorragoa edo bigunagoa erabili behar dela dio Trinik.

Disko guass txartela

14 urte edo gehiago
duzuenok Kultur Etxera hurbildu
zaitezte adin txartela lortzeko.

TXIRIBOGA

Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24

SKANDALO

O I H A L A

eta

MERZERIA

Errosario 8. Tel:74 35 95

15 ostirala

ANTZERKIA

Arratsaldeko 7,30etan TANTAKA taldearen "Adagio violentissimo" antzezlan.

ERAKUSKETA

Arratsaldeko 8etan hasita eta hilaren 31 arte Mugerza Krosaren 50. urteurrenari buruzko argazki erakusketa Ongarri aretoan (San Fratzisko 16).

PILOTA

Ikastolako frontoian gaueko 10,30etan III. San Anton esku pilota txapelketaren finalak.

16 larunbata

ERAKUSKETA

Eguerdiko 12etan "Karraspiña" izeneko Zigilu eta Numismatika erakusketa. Hilaren 24 arte Kultur Etxeko erakustaretoan. Ordutegia: 6etatik 9etara. Jaiegunetan 12etatik 2etara.

FUTBOLA

Arratsaldeko 3,45etan Lerungo Zelaian Elgoibar-Lemona.

**ERRALDOI
ETA BURUHANDIAK**

Arratsaldeko 4,30etan.

ROCK KONTZERTUA

Gaueko 12etan Maalako Parkean E.H. Sukarra, Nahitanahiez eta Pneuma taldeak. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian izango da.

ESKUBALOIA

Arratsaldeko 4etan kiroldegian. Gizeozko kadeteak Andoaingo Leizaran taldearen aurka. 5,30etan Jubenilak Beasaingo KAF taldearen aurka.

ZINEA

Arratsaldeko 7,30etan "Juego de Patriotas".

17 igandea

SAN ANTON eguna

ARTISAUTZA AZOKA

Goiz osoan zehar Foruen Enparantzan.

MEZA NAGUSIA

Goizeko 11etan.

HAUR JOLASAK

Arratsaldeko 4etatik 8etara haurrentzako jolasak Foruen Enparantzan. Euria eginez gero, Kiroldegian egingo dira.

SUZKO ERRUBERAK

Gaueko 10etan King-kongeko zubitik botako dituzte. Astindoa piroteknia etxeok.

TAPIA TA LETURIA

Gaueko 10,30etan Foruen Enparantzan.

ZINEA

Arratsaldeko 4etan Haurrentzako zinea "Jhonny palillo" Herriko Antzokian.

Arratsaldeko 7,30etan "Juego de Patriotas".

18 astelehena

KALEJIRA ETA KONTZERTUA

Eguerdiko 12etan Ertzantzaren Bandaren kalejira eta ordu erdi beranduago kontzertua Herriko Antzokian.

HAUR JOLASAK

Arratsaldeko 4etatik 8etara Foruen Enparantzan.

ZINEA

Arratsaldeko 7,30etan "Juego de patriotas" Herriko Antzokian.

HARPIDETZA TXARTELA

elgoiBARREN herri astekaria, DOHAINIK, astero buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta elgoiBARRENera bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoiBARREN astekaria, Ubitarte 4 behea.(20.870) Elgoibar
TEL: 74 16 26

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 15 ostirala Ormazabal
- 16 larunbata Ormazabal
- 17 igandea Ormazabal
- 18 astelehena Ormazabal
- 19 asteartea Bidasolo
- 20 asteazkena Bidasolo
- 21 osteguna Bidasolo

OKINDEGIAK:

- 17 igandea Zabaleta (Plaza Merkatuan)
- 18 igandea Izagirre

Etxebizitzak

Lana

Salerosketak

Kontaktuak

Tituludun irakasleak
O.H.O.ko klase partikula-
rrak ematen ditu.
Alazne Tel.: 74 28 53

"Modulo 3 de Fabricación
Mecánica" ikasketak amai-
tuta lan bila nabil.
Jon Etxabe Tel.: 74 06 19

Aseguru aholkularitzak
salerosleak behar ditu.
San Bartolome, 15 behea.
(San Bartolome eta Erro-
sario arteko pasalekua)

Karrerako bizikleta salgai.
ZEUS. Merke.
Kaxka: 74 18 57

Bizikleta bat saltzen dut.
Berri-berria. Haurrentzako
"Orbea" markako motoreta
gorria da. Prezioa nego-
ziazteko.
Jasone. Tel.: 74 25 36
Deitu 9etatik 10etara.

Mountain-Bike bat saltzen
dut. **BONTEMPI SIMANO**
500 LX, 48 neurrikoa. Pre-
zioa negoziatzeko.
Kaxka. Tel.: 74 18 57

Nintendo Kotsola bat sal-
tzen dut. **AUKERA!!**
Tel: 74 23 27

Intsumisioari buruzko
informazioa nahi baduzue,
idatzi lasai helbide honeta-
ra:

**Elgoibarko Talde Anti-
militarista, 70 Postaku-
txa, 20.870 Elgoibar.**

Orrialde honetako iragarkiak doan dira.
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel.: 74 16 26

Hertz  **Autobusak**
Rey Quiroga

GIDARIRIK GABEKO AUTO ETA FURGONETAK ALOKATZEN DITUGU


BILKETA-BANAKETA ZERBITZUA:
EIBAR, ERMUA, BERGARA,
ARRASATE, ZARAUTZ, DEBA,
ONDARROA ETA AZKOITIA

PREZIO BEREZIAK KONTSULTA ITZAZU

ERRESERBAK EGITEKO:
TFNOAK: (943) 74.36.50- 54 FAX: (943) 74.38.93

PUB



elgoibar

 **DEBA**
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ez. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53



ELGOIBARKO BATXILERGO
INSTITUTUA

SAN ANTON ZORIONTSUAK DENOI
BETI EUSKARAREN ALDE

F
A
D
E
K

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM

Errosario kalea 35
Tel. 74 26 92

San Anton

93